

2024/2025ko JARDUERA PLANA
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA

1.	SARRERA.....	2
2.	CAMPUSAREN ANTOLAKETA ETA HARREMANAK.....	3
3.	AZPIEGITURAK ETA BALIABIDEAK.....	4
4.	ONGIZATEA ETA JASANGARRITASUNAREN ARLOA.....	5
5.	EKINTZAILETZA, ENPLEGAGARRITASUNA ETA TRANSFERENTZIA	6
6.	IKASLEAK, EUSKARA ETA KULTURA	7
7.	ESPERIENTZIA GELAK.....	9

1. SARRERA

2024ko azaroaren 26ko errektorerako hauteskundeak direla eta, gure Unibertsitateko Gobernu Talde berriaren izendapena 2025eko urtarrilaren 27an izan da. Beraz 2024/2025 ikasturtea trantsizioak markatutako testuinguru batean aurkezten da, Euskal Herriko Unibertsitatearen zuzendaritzan, eta, ondorioz, baita Gipuzkoako Campusean ere. Ondorioz 2024/25eko Jarduera Plan hau trantsizio garai baten barnean kokatzen da eta ekintzak epe mugatu eta labur batean kokatzen ditu.

Unibertsitate-komunitatea osatzen dugun pertsona guztion arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzako taldeak, egungo Unibertsitateak planteatzen duen erronkaz jabetuta, oso positiboki baloratzen dugu gure Campuseko kide bakoitzaren lana eta parte-hartze aktiboa. Campus inklusibo, ireki eta iritzi-eta ikuspuntu-aniztasunarekiko begirunetsuarekin konprometituta gaude, elkarriketa eta lankidetzak izan daitezen gure ekintzen oinarri nagusiak.

Ikasturte honetan zehar, berrikuntza, ongizatea eta konpromiso soziala bultzatuko duten lan- eta ikaskuntza-espazioak garatzen jarraituko dugu. Campusa erreferente akademikoa izateaz gain, osatzen dutenen hazkunde pertsonal, kultural eta profesionalerako ingurune egokia ere izan dadin bilatzen baitugu. Belaunaldi aniztasuna, gazteenetatik hasi eta beteranoenetaraino, gure campuseko aberastasunetako bat da eta bere aukerak gauzatzen jarraituko dugu Esperientzia Gelak bezalako ekimenen bidez.

Badakigu bidea ez dela erraza izango, baina ziur gaude gure unibertsitate-komunitate osoaren ahaleginarekin eta dedikazioarekin gai izango garela erronkei aurre egiteko eta etorkizun indartsuagoa, inklusiboagoa eta bateratuagoa eraikitzeko. Ikasturte hau, zalantzarik gabe, egokitze, hausnartzeko eta hazteko aldia izango da, eta, guztion lankidetzaren eta konpromisoaren bidez, aurrera egiten jarraituko dugu Campus dinamikoago eta solidarioago baterantz.

Jarduera Plan honek Gobernu Taldearen gidalerro estrategikoaren baitan kokatzen da eta "Denon artean" eta denontzat egindako programaren helburuei hurbiltzen hasteko lehenengo jarduerak biltzen ditu.

Juana Goizueta Vértiz
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea

2. CAMPUSAREN ANTOLAKETA ETA HARREMANAK

2.1. Campuseko Batzarraren kide diren kolektibo ezberdinen parte hartzea sustatu, kolektibo guztien ordezkaritza eta parte-hartzea indartzea izanik helburua, haien iritziak eta proposamenak entzun daitezen.

2.2. Errektoreordetza eta Zuzendaritza ezberdinen arteko komunikazio bideak sustatu eta indartu, Gipuzkoako Campusaren eskumenak diren gaitan elkarlana egin ahal izateko.

2.3. Errektoreordetzaren Zuzendaritza taldeak, Campuseko ikastegi ezberdinekin duen hurbiltasuna mantentzea zuzendaritza taldeekin elkarlanean jarraituz, ahal den neurrian laguntza eskainiz.

2.4. Errektoreordetzaren Zuzendaritza taldeak, Campuseko ikasleen ordezkariekin komunikazio bideak sendotzen jarraituko du.

2.5. Campuseko Batzarrean, Errektoreordetzako Zuzendaritzen jarduerari buruzko informazioa trukatzeko jarraitzea, parte-hartzaile guztiok elkarrekin lan egin ahal izateko.

2.6. EHU 2030 Gipuzkoa Proiektua garatzen jarraitu.

3. AZPIEGITURAK ETA BALIABIDEAK

- 3.1. Joxe Mari Korta zentroko II. Faseko amaiera koordinatu eta aldi baterako espazioak esleitzeko deialdia argitaratu.
- 3.2. Ikasle-egoitza berriaren obrak martxan jartzeko eman behar diren pausuak. Egiteke dauden faseak modu egokian bideratu.
- 3.3. Carlos Santamariako eraikinaren estalkia moldatzeko proiektua lantzea.
- 3.4. Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko eraikin berria egiteko obrak bultzatzeko kronograma egin batzorde espezifikoa sortuz..
- 3.5. Plangintza eta Azpiegituretako Gerenteordetzarekin lankidetzan azpiegiturak hobetzeko urte anitzeko plana (PPEMI) garatu.
- 3.6. Campuseko zentro eta eraikinetan berrikuntzak, hobekuntzak eta egokitzapenak egiten jarraitzea.
- 3.7. Prebentzio zerbitzuarekin lankidetzan, simulakroak egin Errektoreordetzaren eraikinetan.
- 3.8. Ikasgelen eta laborategien irakaskuntza ekipamendurako diru-laguntza deialdia egin.

4. ONGIZATEA ETA JASANGARRITASUNAREN ARLOA

4.1. Ongizatea

4.2. EHUn ongizatearekin lotuta eskaintzen diren zerbitzuak aztertzea.

4.3. Ikasleen eta komunitate osoaren benetako behar psikosozialak identifikatzeko lehen urratsak egiten hasia.

4.4. Jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak

4.5. Kirol-probak eta txapelketen antolaketa eta parte-hartzea mantentzea.

- ✓ Gipuzkoako Campuseko neguko txapelketa (urria-azaroa).
- ✓ EHUKo campus arteko kirol txapelketa (otsaila).
- ✓ Euskadiko Unibertsitate txapelketa (martxo). EHU, Deustu Mondragon eta EUNEIZ unibertsitateak.
- ✓ ZABALKI. Unibertsitate arteko nazioarteko euskal pilota txapelketa (martxo).
- ✓ Gipuzkoako Campuseko Udaberriko Txapelketa (martxo-apirila).
- ✓ Espainiako Unibertsitate txapelketak (apirila-maiatza).
- Jarduera fisikoa egitea sustatzea eta ohitura osasungarriak mantentzen jarraitzea.
 - ✓ Gorputz eta kirol jarduerak: hitzartutako gimnasioak, itundutako kiroldegia, Gipuzkoako Udal Kiroldegia, hitzaldiak eta ikastaroak (Kirol egokitua eta Zergatik ez zait nire gorputza gustatzen? Iraila-urria).
 - ✓ Naturako jarduerak (iraila-maiatza).
 - ✓ Kirol eskolak (iraila-maiatza): errugbi, boleibol, runners, PSG (probatu, sentitu, gozatu).
 - ✓ Jarduera nabarmena edo sustapenekoak:
 - Europako Kirol Astea (iraila): hitzaldiak, Kirol eskoletako inaugurazioa eta Kirol eguna hainbat kirol-modalitate praktikatzeko guneekin.
 - Europako Mugikortasun Astea (iraila): Ibilbide gidatua bizikletaz.
 - Udaberriko Lasterketa (martxo).
 - Enpresen Lasterketa (maiata).
- Inguruko jarduera fisiko eta ongizate-eragileen ekimenak aztertzea, hala badagokio, horiek sustatzeko jarduerak garatzeko.
- 4.6. Garraio jasangarria.
 - Egungo lineen maiztasunak aztertzea eta horietan hobekuntzak proposatzea, unibertsitate-komunitatearen intereserako.
 - Campusen arteko interkonektibitatea ahalbidetuko duten alternatibak aztertzea.

5. EKINTZAILETZA, ENPLEGAGARRITASUNA ETA TRANSFERENTZIA

5.1. Ekintzailletza

- Ikasle eta irakasle-ikerlarien artean kultura ekintzailea sustatu, Campuseko zentro ezberdinetan ikasleekin ekintzailletzaren inguruko jarduerak antolatuz. Gazte Ekintzailletzako Programa antolatu (hiru Campuseko zuzendarien kolaborazioarekin)
- Entreprenari Programaren bidez ikasle eta irakasle-ikerlarien enpresa proiektuak bultzatu.
- XXIV Manuel Laborde Werlinden Sariak antolatu.
- EHU Gazte Ekintzaile plana garatu kanpoko erakundeekin ditugun hitzarmenez baliatuz. Donostiako Sustapenarekin kolaborazioa jarraitu ekintzailletza bultzatzeko ekimenekin.
- 2025-2028 Euskadiko Erakundearteko Ekintzaile Planari ekarpenak egin.

5.2. Enplegagarritasuna

- Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordetzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean 2025 urtean Gipuzkoako Campuseko Enplegu Foroa antolatzea.

5.3. Transferentzia

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ereduan parte hartu eta proiektuak aurkezteko jardunaldia antolatu.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ikasleen talentua sustatzeko programari jarraipena eman.
- Donostiako Estrategia Bulegoaren Gizarte Kontseiluan eta Plan Estrategikoaren Lan Batzordean parte hartu HAPOari ekarpenak eginez.
- Unibertsitate-enpresa-gizarte gelen sarea sendotu eta zabaltu, gizarte arloko gelak bereziki sustatuz.
- Gipuzkoako Campuseko Berrikuntza Irekiko ADEGI unibertsitate-enpresa gela eta Tecnalia gela teknologikoaren kudeaketarekin jarraitu.
- Zientziaren dibulgazioa gizartean areagotu. Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordetzarekin Zientzia Astea antolatu.

6. IKASLEAK, EUSKARA ETA KULTURA

Bizkaia eta Arabako campusetako Ikasleen, Euskara eta Kulturako zuzendariekin komunikazioa, koordinazioa eta elkarreragina indartzea.

6.1. Ikasleak

- Zentroei eta zentro-atalei zuzendutako dirulaguntzak, graduazio-ekitaldiak antolatzeke.

- Ikasle bikainak eta graduetakoe espediente onenak aitortzeko ekitaldia antolatzea.

- EGOKITU programaren ikasturte honetako edizioa antolatzea, Ekintzailatza, Enplegarritasuna eta Transferentziako Zuzendariarekin batera.

- Informazio-hitzaldiak antolatzea Gipuzkoako hainbat eskualdetan, gure ikasle potentzialei UPV/EHUren eskaintza akademikoa aurkezteko.

6.2. Euskara

- UPV/EHUko Euskara batzordeak antolatzen dituen bileretan parte hartu eta batzordekideekiko harremana bultzatzea eta sustatzea.

- Unibertsitateko bizitzako esparru guztietan euskararen erabilera areagotuko duen dinamika sustatzea.

- Euskara tekniko-zientifikoaren zabalkundea eta erabilera sustatzen duten ekimenak bultzatzea.

- Dauden baliabideak indartu EAEtik kanpoko ikasleei euskararen eta euskal kulturaren ezagutza transmititzeko.

- Eusko Jaurlaritzak ODS 18. Helburua jasagarritasuna, euskara (hizkuntz gutxiak) eta kultura atxikituz antolatzen ari den bileretan parte hartu

6.3. Kultura

- UPV/EHU sortzen den kultura zabaltzea eta ezagutaraztea

- Inguruko kultura-eragileekiko eta erakunde publiko eta pribatuekiko sinergiak areagotu, kultura-jarduerak sustatzeko.

- Kultura batzordea Gipuzkoako campusean sortzeko eman behar diren lehenengo pausuak ematea.

- Ikaslegoarekin komunikazio-bideak bultzatzeko lehen urratsak ematea, kultura-politikak batera diseinatu ahal izateko.

- Ikasleentzako kultura-bekak sortzeko hausnarketa egin.

- Kulturaren Astea antolatzeko eman behar diren pausuak sustatu.
- Gipuzkoako campusean erakusketak (marrazketa-tailerra, zenbait artisten lana,...) hitzaldiak, kongresuak, jardunaldiak eta unibertsitate hedakuntzarako ekintzak burutzea eta Unibertsitateko sareak (G9 taldeak,...) aberasten dituzten kultura-elkarteekin lankidetzahitzarmenak bultzatzea (UPV/EHU- Donostiako XXIII Orfeoi Saria, UNIKOAK musika maketen lehiaketa parte hartu, Tabakalera, EQZE, Zinemaldia, Filmatagia, Elias Querejeta zinema eskola, Donostia Kultura, Foru Aldundiako cultura Saila, ...) kultura ekimenak bistaratzea.

7. ESPERIENTZIA GELAK

- 7.1. Giza Zientzietako unibertsitate-tituluaren prestakuntza-eskaintza berrikustea eta eguneratzea, kalitateari eta gizarte-interesari eusteko.
- 7.2. Helduentzako Unibertsitate Ikastaroetan (HUI) graduako irakasgaien eskaintza zabaltzea.
- 7.3. Gure unibertsitateko jarduera kultural eta zientifikoaren berri ematea Esperientzia Geletan.
- 7.4. UPV/EHUko hiru Esperientzia Geletako zuzendaritzaren eta ikasleen arteko lankidetzaren sustatzea.
- 7.5. Hiru campusetako zuzendaritzen artean hurrengo ikasturteko irakaskuntza-eskaintza koordinatzea.